



Asier López de Uralde - Iker Ametzaga
Aixerrota BHI, 14-15

Aurkibidea

Josu Martinez	2
Sarrera	2
<i>Tunelak, izarak, mozorroak eta bafleak</i>	
Kokapena	3
Gaia	3
Argumentua	3
Istoriok	4
Pertsonaiak	10
Egituraketa	11
Baliabideak	11
Iritzia	11
Biblio-Webgrafia	12

Josu Martinez

Josu Martinez (Bilbo, 1986) ikus-entzunezko komunikazioan eta Gizarte eta Kultur Antropologian lizentziatua da.



Itsasoaren alaba, Sagarren denbora, Prohibido Recordar eta *Barrura begiratzeko leihoak* dokumentalak zuzendu ditu, bakarka ala beste zinegile batzuekin batera; eta *Hitzezko txalupak* (2012, Alfonso Etxegararekin elkarlanean) eta *Tunelak, izarak, mozorroak eta bafleak* liburuaren egilea ere bada.

Horrez gain, *Bertsolari* aldizkariko zuzendaria izan zen, eta komunikabide ainitzetan kolaboratzaile. 2007an, "Rikardo Arregi" kazetaritza sari berezia eskuratu zuen.

Euskal zinemari buruzko doktore tesi bat ere prestatu du.

Sarrera

Obra hau 2014ean idatzi zen. Guk irakurri dugun liburua bigarren edizioa da, Elkar argitaletxekoa. Liburu honetan Josu Martinezek 10 ihesaldi kontatzen dizkigu. Autoreak ihesaldien protagonistekin hitz egin ondoren beraien "abenturazko" istorioak liburu honetan bildu ditu.

Tunelak, izarak, mozorroak eta bafleak

Kokapena

Obra honek ez dauka kokapen zehatzik, istoria bakoitza leku batean gertatzen da.

Gaia

- Presoen espetxetik ihes egiteko saiakerak dira.

Egin diren ihesaldi ospetsuenetariko batzuk aurkezten zaizkigu, bertan irakurri dezakegunez preso baten lehen betebeharra ihes egitea da. Istorio bakoitzak protagonista batzuk ditu baina guztiek helburu bera dute, espetxetik ateratzea.

Argumentua

Hainbat ihesaldiren protagonistekin hitz egiten du eta hauek idazleari beraien ihesaldiren istorioak kontatzen dizkiote eta ondoren autoreak liburu honetan idatzi zituen. Hainbat ihesaldiren istorioak daude: Joseba Sarrionandiarena, Jontxu Butronena...

Hitz gutxitan, liburu hau ihesaldi interesgarrien bilduma bat da.

Istorioak

Hamar ihesaldi daude liburuan. Bakoitzak bere istorioa du.

1. Basauriko satorrak

Jontxu Butron da Josu Martinezeri istorio hau kontatzen diona. Jontxu Butron hainbat ETAkiderekin atxilotu zuten eta Basauriko kartzelara eraman zituzten. Kartzelan hierarkia bat zegoen eta zoritxarrez politiko gaztetxoak piramidearen beheko aldean zeuden. ETAkideek lido gogorra sortu zuten, hau da, ETako kideek jarraitu behar zuten diziplina bat osatu zuten eta diziplina zaintzeko asanblada bat ere egin zuten, presidente eta guzti. Kartzelan sartu bezain laster bertatik irteteko plan bat burutu zuten preso politiko batzuek. Plan horren arabera kanpoko laguntzarekin hari bat jaurtiko zuten kanpora eta kanpotik hari metal bat jasoko zuten, ondoren hariak tente jarrita tirolina bat egingo zuten eta hortik kanpora jaurtiko ziren.

Zoritxarrez, planean parte hartzen zuen preso sozial bat libre utzi zuten, eta denbora gutxira berriz atxilotu zutenean planaren berri eman zion poliziarri; beraz plana bertan behera utzi zuten.

Geroago beste idea bat izan zuten, tunel bat egitea. Annton Jauregizuria, Jontxu Butron, Joseba Marina, Josu Bilbao eta Mikel Solaun eta beste preso sozial batzuen laguntzarekin sukaldean tunel bat egin zuten. Egunero arazoak izan zituzten, esate baterako, egun batean uholdeak egon ziren tunelean eta ura bertatik atera behar izan zuten. Azkenean hainbat hilabete pasa ostean tunela bukatu zuten eta kartzelatik irten ziren. ETako kideak Parisera joan ziren asilo politiko bila, beste iheslariak, bat izan ezik, berriz atxilotu zituzten handik denbora gutxira.

2. Martxoaren 6a

Josemari Sagardui "Gatza" Granadako espetxean dago atxilotuta. Egoera oso gogorretan bizi da, isolamenduan eta beste presoek duten eskubiderik gabe. Egun batean kide batek esaten dio Guardia Zibilaren garita bat askotan hutsik dagoela eta Gatzak hori konfirmatu ondoren plan bat burutu

zuen. Bere ziegaren alboan usotegi bat dago, eta bere ziegatik garitara doan kable elektrikoa bat hautematen du. Martxoaren 6an bere ihesaldia gauzatu du. Teilatura joan da, kable elektrikoa habe batean lotu eta ziegara bueltatzen da egunsentia heldu arte. Ordua denean, Gatza teilatura doa berriz eta kable elektrikitik zintzilikatzean, kablea ez da bere pisua eusteko gai eta Gatza lurrera jausten da 6 metrotik. Poliziek jauzia ikusi eta Gatzarengana doaz. Azkenean ospitalean hilabeteak pasa eta gero berriz kartzelara itzultzen da eta 31 urte geroago aterako da.

3. Kontsularen ihesaldia

Francoren garai hasieran Euskal Herrian ikastolak eraikitzen hasi ziren eta Francok jendea beldurtzeko Burgoseko Prozesua egin zuen. Prozesu horretan hainbat ETA kide atxilotu zituzten eta heriotza zigorrak ere ezarri ziren, nahiz eta azkenean ez gauzatu. Burgoseko Prozesua hasi baino lehen ETA bi taldetan banandu zen: ETA VI. eta ETA V.

Istoria honetako protagonistak ETA V-ekoak ziren. Burgoseko Prozesua atzeratu nahian eta Francori mezu bat bidaltzeko nahian alemaniar bat atxilotu zuten Donostian. Alemaniako kontsula zen, Eugen Beihl izenekoa. Bere etxean bahitu zuten eta Montoriko etxe batean ezkutatu zuten. Gabonetan Eugenek etxetik ihes egin zuen eta taberna batera joan zen laguntza bila, bertan ez zioten sinisten, baina geroago bere istorioa sinetsi zuten. Hiru lagunek bahituta zegoen etxea ikusi nahi zuten eta Beihl-ek gidatu zituen. Apezaren etxea zen, beraz Montoriko tabernako hiru gizonak Aita Legartoren etxean utzi zuten berriz Eugen Beihl. Handik egun gutxira kontsula libre zen Alemanian eta Burgoseko Prozesua ETAREN aldeko tanto batekin hasi zen.

4. Segoviako katalanak

Segoviako kartzelan hainbat katalan zeuden atxilotuta. Erreformatik egiten ari ziren egun batean tunel bat egiteko ideia izan zuten eta horri ekin zioten. Dutxan zeuden bitartean preso batzuk tunela egiten zuten. Egundak batzuk geroago tunela eginda zegoen eta irteteko prest zeuden baina "Lobo"

ezizeneko preso batek poliziei plana kontatu zien eta bertan behera utzi zuten ihesa. Geroago beste leku bat aurkitu zuten tunel bat egiteko, komun zahar batean hasi ziren tunela egiten. Egun batzuk geroago tunela eginda zegoen eta katalanak espetxetik atera ziren. Basoan zeudela guardia zibilarekin topo egin zuten eta tiroka hasi ziren, ondorioz pare bat preso hil ziren. Talde txiki bat ubranizazio batera joan ziren eta bertan hamar egun izkutatu ziren, gero familiaren autoarekin Parisera joan ziren asilo politikoaren bila baina frantsezek Yeu uhartera bidali zituzten, han narratzaileak lagun mallorkar bat ezagutu zuen eta berriro ihes egin zuten txalupa batean.

5. Txoriak txori

Ihes saiakera guztiak ez dira lurretik gertatzen, batzuetan airetik ere gertatzen dira, honelako ihesaldi famatuenak bi dira:

Lehenengoa Sevillako kartzelan gauzatu zen Iñaki de Juana askatzeko nahian ETA kideek plan bat egin zuten, horren arabera helikoptero bat alokatuko zuten eta De Juana patioan zegoela kartzelatik atera.

Bigarrena Huelvako espetxean izan zen, ihesaldi honetan ETAk Huelvan ziren presoak askatzeko plan bat egin zuten. Plan horren arabera norbaitek helikoptero pilotuaren familia bahitu behar zuen eta pilotuaren laguntzaz helikoptero batekin presoak espetxetik atera eta beste leku batean ezkutatu. Bi plan hauek ez ziren burutu, poliziak horien berri izan zuelako plana bete baino lehen.

6. Ospitalekoa

Josuk bi email jaso zituen eta kasik aldi berean sartu ziren postontzira. Horietako bat ezezagun batek idatzia zen eta elkarrekin ihesaldi saiakerei buruz hitz egiteko proposatu zion, eta Gasteizko ostatu batean geratzen dira. Denbora batean hitz egin eta gero, agurtu eta Komando Autonomo Antikapitalistetako kidea zen ezezagun hark gutun bat luzatu zion Josuri. Bilborako bueltan irakurri egin zuen eta "Kabra" ezizenarekin ezaguna zen Komando Autonomoetako kideari buruzkoa zen testigantza. Honek, egun batean bere kide batekin kotxe bat pistolaz lapurtzen saiatu zirenean polizia

auto bat igaro zen haien albotik, beraz, arrapaladan eskapatu ziren kotxearekin baina pretila jo zuten handik 500 metrora eta Beasaingo klinikara eraman zuten Kabra. Zaurituak berehala esan zuen klinikatik irten nahi zuela eta plan bat abian jarri zuten: honek ihes egingo zuen leihotik kanpoko polizia patrola begira ez zegoen bitartean eta haren kideek bera jasoko zuten kotxe lapurtu batekin. Hala ere, Kabrak ihes egitea lortu zuenean beste aldetik egin zuen alde eta haren kideek auto legala zeraman kidearekin topo egin zuten. Izugarritzko ihesaldia izan zen Kabrarena, polizia ez ezik, kideengandik ere eskapatu zen.

7. Antzezlan

IK talde ezaguna zen ordurako Euskal Herriko iparraldean, eta ihesaldi honetan kartzela barrura sartuko ziren preso zeuden haien bi kide espetxetik libratzeko. Hala ere, bazekiten ez zela lan erraza izango haien kideak kartzelatik ateratzea eragozpen edo liskarrik gabe, beraz, plan bat burutu zuten. Kartzelako zuzendaria, kartzelan bertan bizi zen eta haren laguntza beharko zutela pentsatu zuten, izan ere, hura ezagutzen dute kartzela osoan. Haren laguntza eskuratzeko, bere familiaz informatu ziren eta konturatu ziren haren alaba zela espetxetik kanpo bizi zen familia kide bakarra. Hori kontuan izanda, alabaren etxera joan ziren eta bere aita deitzera behartu zuten. Espetxeko zuzendaria arrapaladan heldu zen haren alabaren etxera eta behin heldutakoan IK-ko kideek azaldu zioten pentsatuta zeukaten plana. Hasieran, ez zuen planean kolaboratu nahi baina laguntzen ez bazien arazoak izango zituela adierazi zioten, beraz, honek erremediorik gabe onartu egin zuen planarekin kolaboratzea.

IK-ko kideetako bat eta zuzendaria zihoazen lehenengo kotxean eta bigarreanean gainerako kideak. Zuzendariak egarri zela esan zuen eta perrier bana edan zuten eta plana burutzera abiatu ziren. Espetxera ailegatzean, IK-ko kideak kartzeleroak izango balira bezala mozorratu ziren eta zuzendariarekin batera sartu ziren. Egin zuten lehenengo gauza haien bi kideen ziegak bilatzea izan zen eta behin haiek aurkituta, beste espetxe batera trasladatuak izango zirela jakinarazi zieten. Benetako kartzeleroek amua irentsi zuten eta bi presoak askatu zituzten.

Azkenean, bi preso ohiak euren kideekin sartu ziren autoan eta eskapatzen ziren bitartea “Gora euskadi askatua” oihukatu zuten. Geroago, zuzendariak

esan zien benetako kartzeleroak sobornatu egin zituztela eta ez zirela trasladatuak izango baizik eta ihesaldi bat zela, baina jadanik beranduegi zen.

8. Bi anai

lhesaldi honetan bi anaiek paperak trukatu dituzte, izan ere, anaia nagusiak, hau da, libre dagoenak pentsatzen du bere anaia txikiak oporrak izateko eskubidea izan behar zuela; beraz, egun baten geratu ziren paperen trukaketa egiteko. Biek rapatu zuten ilea eta tiritak bat jarri zuten kokots aldean, izan ere, bietako batek zauri bat zeukan gune horretan. Eguna heldu zenean, pare bat minutuko bisita eduki ostean, bisita amaitzeko ordua zela esan zieten kartzeleroek eta justu momentu hartan lekualdatu ziren. Beraz, libre zegoen anaia espetxera sartu zen eta beste, aldiz, libre geratu zen. Anaia nagusiak ez zuen espetxea ezagutzen eta, beraz, zaila egin zitzaion haren ziega aurkitzea, baina azkenean lortu zuen. Hainbat hilabete igarotakoan, ziegakide bat ohartu egin zen preso zegoen anaia ez zela benetakoa eta harrapatu egin zuten; beraz, benetan preso egon behar zen anaia berriz kartzeleratu zuten eta anaia nagusia libre geratu zen.

Anaia nagusiak esan zion behintzat zerbaiteko balio izan duela paperak trukaketa, izan ere, horrela anaia txikiak opor luze batzuekin gozatu zuen.

9. Kartzela barnera ihes

lhesaldi honetan, Patxi Arana Bermeotarraren eta haren presokide ziren ETako batzuen istorio harrigarria kontatzen du Josu Martinezek. Zulo bat egitea zen haren eta bere kideen helburua espetxetik alde egiteko, baina, hain zen kartzela txikia eta hain zen handia segurtasuna ezin zutela tunelik egin kartzeleroek horren berri izan barik, beraz, ezkutatzeko leku batean pentsatzen aritu ziren egunetan eta egunetan. Tailerretara abiatu ziren eta azkenean leku aproposa aurkitu zuten, tailerreko gaineko ganbara iluna. Han pare bat teila kendu zituzten eta espetxeko teilatura igo ziren. Beraien plana soka luze bat teilatutik behera zelai batera botatzea zen kartzeleroek pentsa zezaten handik eskapatu zirela. Hori egin ondoren, tunela egiten hasi ziren ganbaran. Egunero arratsaldean egiten zen errekuentoa eta preso

batzuk falta zirela konturatu ziren, baina haien bila tailerrera joan zirenean ez zituzten aurkitu ondo ezkutatuta zeudelako, beraz, tunela egiten jarraitu zuten. Egun batzuk igaro ondoren, kartzelan obratan zeudenez, kamioi handi batekin zeuden lanean eta erori egin zen tunelaren gainean. Horren ondorioz, presoak harrapatu zituzten ganbaran eta beste espetxe batzuetara lekualdatu zituzten, izan ere, pila bat zaku lur atera zituzten 52 egunetan eta noizbait eskapatuko ziren beldur ziren.

10. Bafleetatik ihes

Josu Martinez Joseba Sarrionandiarekin kontaktatzen saiatzen da baina alferrik. Bafleen ihesaldia kontatu nahi du eta bat-batean gogoratzen da beste preso bat Sarrionandiarekin ihes egin zuela, bere ezizena "Piti" da. Piti rekin kontaktuan jartzen da eta argazki denda batean zitatzen dira. Pitik bere ihesaren istorioa kontatzen dio: hainbat espetxetan egon zen eta azkenean Martuteneko espetxera trasladatu zuten, bertan Joseba Sarrionandia ezagutu zuen. Sarrionandiak plan bat zuen eta bere taldekidea trasladatu zutenez beste preso baten laguntza behar zuen, Pitiri tokatu zitzaion kargu hori. Kartzelako zuzendaria berria zen eta hainbat ekintza antolatzen zituen. Egun batean Mikel Antzaren kontzertu bat antolatu zuen. Kontzertua bukatu zenean, presoak bafleak jasotzen zeudenean, Piti eta Sarrionandia barruan sartu ziren eta espetxetik irten ziren. Abeslariaren lagun baten etxean ezkutatu ziren eta hortik hainbat hilabetera Parisera joan ziren eta bertan Sarrionandiaren eta Pitiren bideak banandu ziren.

Elkarrizketa amaitzean idazlea bere etxera doa eta gauean Sarrionandiaren mezu bat jasotzen du, idazlearekin hitz egin nahi du, baina, Martinez ez doa zitara.

Pertsonaiak

Hamar istorio desberdin dira, beraz pertsonaia asko daude baina pertsonai alauak dira, hots, ez dakigu nola diren fisikoki edo psikologikoki, gehienetan dakigun bakarra beraien izenak dira.

1. istorioan, idazleari istorioa kontatzen diona Jontxu Butron da, ETA kide izan zena, beste ETA kideekin atxilotu zuten.
2. istorioan, Josemari Sagardui “Gatza” da ihesaren protagonista. European kartzelan denbora gehien eman duen preso da, hainbat alditan ihes egiten saiatu dena.
3. istorioan, Alemaniako kontsula da pertsonaia nagusia, Burgoseko Prozesuaren kontra jotzeko ETAk bahitu zuen lehenengo pertsona izan zelako.
4. istorioan, narratzailea da pertsonaia nagusia baina ez dakigu bere izena, berataz dakigun bakarra da Sevillako espetxetik ihes egin zuen presoetako bat dela.
5. istorioan ez dago pertsonai zehatzik, gertakariak bakarrik dira, airez eginiko ihes saiakerak gehienak ETAk eginak.
6. istorioan, Josu Martinezi eman zioten gutun bat eta gutun hartan “Kabra”ren ihesaldi saiakera kontatzen da.
7. istorioan, IK taldeko kideek haien taldeko bi preso espetxetik ateratzeko burutu zuten plana kartzelako zuzendariaren laguntzarekin kontatzen du Martinezek.
8. istorioan, bi anaien paper trukea kontatzen du Josu Martinezek, eta nola bakoitzak bestearen bizitza eramaten duen hilabete batzuen tartean.
9. istorioan, Patxi Arana Bermeotarraren eta ETako presokide batzuekin egindako ihesaldi saiakera kontatzen digu egileak.

Egituraketa

Obra honek ez dauka egituraketa finko bat. Idazleak preso iheslariei bere istorioa kontatzeko esaten die eta hauek beraien ihesaldiak iraganean kontatzen dituzte.

Baliabideak

Elkarrizketa asko erabiltzen ditu:

—Alta, hor ez da bukatzen “ Segoviako ihesaren historia”.

—Asilo politikoa eskatzera Parisera joateko gomendatu ziguten.
Baina alferrik.

Hainbat esamolde eta metafora erabiltzen ditu.

Istorioak eta bere pentsamenduak desberdintzeko autoreak “ ” (komatxoak) erabiltzen ditu.

Iritzia

Obra honetan Josu Martinezek kartzelatik izan diren 10 ihesaldiren saiakerak kontatzen ditu.

Egia da liburua ez dela oso luzea eta uste baino laburragoa egiten dela irakurketan zeharo murgilduta gaudenan, izan ere, oso interesgarria da orain dela urte batzuk gertaturiko ihesaldi mota desberdinei buruz jakitea edo informatzea. Hala ere, nahiago dugu liburu luze eta ulermenari dagokionez zailtasunez josia dagoen liburu bat irakurtzea? Gaur egun, Euskal Idazleen maila asko handitzen ari da eta gero eta obra hobeak ateratzen dira haien eskuetatik. Orain dela urte batzukoekin zerikusirik ez duten liburu diferenteak argitaratzen ari dira urteen joanean eta gero eta gehiago liluraten gaituzte euskal Idazleek.

Josu Martinez, ez da beste euskal Idazle batzuk bezain famatua, izan ere, hasi berria da honetan. Argi dago obra hau edozeinentzat gomendagarria dela, bere irakurtzeko erraztasunaren ondorioz. Hala ere, politikari buruzko ezagutzak baldin badituzu, liburuan kontatzen diren ihesaldiak hobetu ulertuko dituzu, badirelako hainbat termino politikarekin erlazionatuta daudenak irakurketa pixka bat zaildu egin dezaketenak, hala nola, *asilo politikoa, preso soziala...*

Webgrafia

- . Elhuyar.net
- . Wordreference.com